

IKUSMIRAN

egoeraren azterketa

EZOHIKO AZTERKETA
2020KO MAIATZA

Ikusmiran

Egoeraren azterketa

Ezohiko azterketa | 2020ko maiatza

Aurkibidea

AZTERKETAREN ONDORIOAK	5
BPG-REN BILAKAERA	7
LANGABEZIAREN BILAKAERA	7
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	8
Hego Euskal Herria	8
Nafarroa	8
Araba/Bizkaia/Gipuzkoa	9
Afiliazioaren bilakaera jardueraren arabera	9
Afiliazioa kontratu motaren arabera	10
Afiliazioa generoaren arabera	10
ENPLEGUA ALDI BATERAKO ERREGULATZEKO TXOSTENAK (EABET)	11
Hego Euskal Herria	11
EABETen ERAGINPEAN LANGILE GEHIEN DITUZTEN JARDUERA EKONOMIKOAK	11
Nafarroa:	11
Araba/Bizkaia/Gipuzkoa:	12
ENPLEGU PUBLIKOA	13
OSASUNGINTZA	13
Gastu publikoa osasungintzan	14
Profesionalen arteko lan-banaketa	15
Ospitaletako ohe kopuruak	16
LOREA	16
ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ARRISKUAK	17

Esku artean duzun txosten honek bat bateko argazkia atera nahi izan du. Gertakariak, bata bestearen atzetik, abiadura bizian doaz. Eta astebete lehenago gertatutakoak errealitate urruti baten moduan sentitzen ditugu. Bizitzen ari garenaren berritasunak eta ziurgabetasunak datuen eta informazioen saturazioan murgiltzea erraztu dute, egungoaren azalpen bila eta, batez ere, etorkizunaren galdera handientzako erantzunen peskizan.

Galdera horiei erantzuna emateko bizkor ibili behar dugu. Izan ere, sortu den krisiari irtenbidea emateko proposamenak ez ezik politikak eta neurriak marrazten eta gauzatzen hasi dira dagoeneko. Ez dago krisiaren kudeaketa neutralik. Baina, arazoak ongi identifikatu eta informazio egokia eskuratzea eta patxadaz hausnartzea bada garrantzitsua, plaza publikoan proposamen egokiak egiteko. Txosten honek horretan izan nahi du lagungarri, gertakizunaren argazki bat eskainiz. Egongo dira perspektiba gehiago hartzeko eta azterketa osoagoetarako tarteak. Gure ekarpen honek momentuaren kontzientzia hartzen lagundu nahi du.

Euskal Herriko argazki bat ateratzea ezinezko eginkizuna izan da. Ipar Euskal Herriko errealitatea Frantziar Estatuko zenbakietan atzeman ezina gertatu da krisi honen kudeaketa zailean. Gure helburu eta nahia Euskal Herriko analisia izanik, Hego Euskal Herrira mugatu behar izan dugu. Bertako banaketa administratiboak ere ez du Hego Euskal Herriko datu homogeneorik eskaintzen, baina errealitate administratibo horietan euskal lurraldeei eta herritarrei dagokien informazio berezitua lortzerik izan dugu, Ipar Euskal Herriko kasuan ez bezala.

Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz dagoeneko hainbat erabaki hartu dituzte Gobernuek. Osasun larrialdiari lotuta batzuk, ekonomikoak, sozialak... besteak. Neurri hauen inpaktua nolakoa izango den baloratzeko datu gutxi izan arren lehen asteek utzi diguten argazkiaren lehen zertzeladak jasotzea du helburu analisi honek. Lan merkatua goitik behera astindu duen krisialdi hau ondorio sozial ikaragarriak uzten ari da, eta lan merkatuaz gain urtez urte ahuldu duten osasungintza eta eremu publikoaren analisi azkar bat ere egingo dugu

AZTERKETAREN ONDORIOAK

Bizi dugun sistema ekonomiko kapitalistak zalantzasu beterik ekin zion urteari. 2019 urtea amaitu orduko joera globalen gaineko ziurgabetasunek Euskal Herriko ekonomian zalantzak sortzearekin batera, hazkunde ekonomikoa indarra galtzen hasia zen. 2020ko mehatxu nagusizat BREXITak sortuko omen zuen ezengokotasun ekonomikoa edo eta Ameriketako Estatu Batuetan eta Txinaren arteko gerra ekonomikoa hartzen ziren koronabirusak aurreikuspen guztiak hankaz gora jarri dituen arte. Covid-19aren ondorioz hartu diren erabakiek Euskal Herri osoko errealitatea astindu dute. Hartu den erabaki sanitario handienak (populazioaren konfinamenduak) sistema ekonomikoaren funtzionamenduan eragin aparta izan du. Horren eragina gure herrian gaixotasunaren zantzuak ezagutu baino lehen bizitzen hasiak ginen, hainbat industria ekoizpen lerrok hornikuntza arazoak baitzituzten beste lurralde batzuetako (Txina, kasurako) kutsatze eta konfinamendu egoerengatik. Baina, martxoaren erditik hona bere eragina erabatekoa izan da ekonomikoki eta sozialki. Egun batetik bestera etxetik ezin atera, haur eta helduon egunerokotasuna moztu eta errealitate berri batera egokitzen hasi ginen.

Ez gaude denak baldintza berdinetan osasun krisi bati aurre egiteko eta ezta ere ekonomia krisi baten ondorioak pairatzeko. Hego Euskal Herriko lan eta bizi baldintzetan emaniko bilakaera negatiboa izaten ari zen. Adibide moduan aipa ditzakegu Gaindegiak eskainiriko honako datuak:

- Ertain-luzeko langabeziak (2 urtetik gora) 10 urtetan (2009-2019) %123,3ko igoera izan du
- Lanaldi partzialen ehunekoa %17,9 igo da denbora tarte berean
- Soldata altuenen eta baxuenen arteko arrakala %12 hazi da.

2012an PPK onarturiko lan erreformek, 2010ean PSOEk onarturiko erreformetan gehiago sakontzea ekarri zuten. Biek helburu berak izan zituzten: enpresei malgutasun mekanismo berriak eskaini eta lehiakortasuna (enpresen eta enpresarien mozkin tasa) handitzea soldata eta langile klasearen eskubideen kontura. Lan erreforma horiek, enplegu merkatua arautzeko Espainiar Estatuan ezarritako legeriak, euskal langileria pobretu egin dute eta baldintza okerragoetan utzi gaituzte gure osasuna zaintzeko.

Kaleratzea erraztu eta merketu zuten, langabezia prestazioa gutxitzen zuten bitartean. Hitzarmen kolektiboaren eraginkortasun araugilea gutxitu zen ultraaktibitatea kenduz, enpresa hitzarmenei eman zitzaion lehentasuna sektoreko hitzarmenen gainetik, enpresei lan baldintzak aldatzeko eta adosturiko akordioak ez betetzeko erraztasunak eman zitzaizkien, enpresei malgutasun handiagoa eman zitzaizen lan jardunaldi irregularra erraztuz... Orduan harturiko erabakien ondorioz, lan merkatu prekarizatu eta desarautu bat dugu oinarri, ezjakintasunez beteriko egoera berri honi aurre egiteko. Lan erreforma horiek, euskal langileen greba orokorren bidezko gaitzespena izan zutenak, krisi honi irtenbide justu bat emateko oztopo estrukturalak dira.

Hurbileko historian izan dugun atzeraldi ekonomiko handienaren aurrean gaude. BPGren uzkuartzea dagoeneko errealitate bat da eta aurreikuspenek uzkuartzea areagotuko dela diote. Bat batean etorri den egoera bat izan da eta jatorria ekonomiaren egoeran ez duena. Horrek diskurtso politiko eta enpresarialak "berreraikuntza" edo "errekuperazioa" denboran eta ekimenean kokatzera eraman du. Aldiz, krisiaren gaitzespenak, berriz ere historian (eta mende honetan bigarren) krisian erabat murgildu den sistema bat eraldatzeko ariketa politiko eskatzen digu. Lehen unetik ikusi dugu kapitalaren interesak nondik finkatu diren: begirada ekonomizista hutsa ezarri nahi izan dute. Ekonomiarekiko kezkan mozorrotu dituzte haien irabazi enpresarialak, eta lehentasunak eta osasun neurriak horretara subordinatzeko presioa egin dute. Jarduera ekonomikoa kosta ahala kosta mantentzeko "koma ekonomikoa" bezalako kontzeptuak sortu ditu Urkulluk eta patronalen interesen paladinaren titulua eskuratu du 2012ko lan erreformaren defendatzaile agertu denean.

2008ko krisi finantzarioaren ondoren Gobernuak harturiko erabakiek areagoturiko prekarizazioa, bazterketa soziala eta soldata arrakala maila handiak genituen dagoeneko Covid-19aren krisia hasi zenean. 2010ean eta 2012an Espainiar Estatuan, PSOE-ren eta PP-ren gobernuek gauzatutako lan erreformek ustezko errekuperazio ekonomikoa herritar gehienek bizitzaren, eskubideen eta aberastasunaren prekarizazio eta debaluazioarekin ordaintzea ekarri zuten.

Bi hilabete eskasek, egoera gogorra eta norabide dramatikoak marraztu dute.

- Enpleguaren galera izugarria izan da. 2019ko Apirilarekin alderatuta 2020ko Apirilean %20,8 langabetu gehiago ditugu Hego Euskal Herrian. Gazteen arteko langabezia igo da gehien, %34,7 hain zuzen ere.
- Galdu den afiliazioaren %89k behin-behineko kontratua zuten.

- Afiliazioa gehien galdu duten sektoreak honakoak dira: zerbitzu administratiboak, ostalaritza, merkataritza, ibilgailuen konponketak, hezkuntza, eraikuntza eta manufaktura industria.
- ERTEetan dagoen langile kopurua krisiaren 2 hilabeteetan galdu den afiliazioa baino bost aldiz handiagoa da. ERTEen bilakaerak langabezia neurririk gabe haz dezake.
- ERTEetan ondorengo jarduerak dira nagusi: ostalaritza, merkataritza, metalezko produktuen fabrikazioa eta ibilgailu motordunen fabrikazioa.
- Enplegu publikoa ere ez dago krisitik salbu. Urtez urte hazten doan behin-behinekotasun tasa izugarriak erakusten digu langile finkoak erretiroa hartzen duten bitartean behin-behineko langileek ordezkatzeko dituztela. Madrilek ezarritako reposizio tasa indargabetu artean joera behin-behinekotasuna igotzea izango da enplegu publikoan ere.
- Esan gabe doa, osasungintzako langileei txaloak itzaltzeko deialdiarekin batera, langile publikoen baldintzak eta soldatak edota langile publikoen kopurua bera kuestionatzen duten diskurtsoak entzun ditugula eta ustezko azterketak medioen portadak betetzen.
- Osasungintzaren egoerak bereziki, premiazko berrantolaketa baten beharra erakusten du LABek bere LOREA proposamenean azaldu bezala. Kalitatezko osasungintza publikoa (kudeaketa ustelik gabekoa, baliabide eta langile nahikotasunerako inbertsioarekin eta antolaketa eraberrituarekin) lehentasunez mahai gaineratu den ondorioetako bat da.
- Krisiaren gestioan zeinen interesak defendatzen diren gakoak izango da Hego Euskal Herriko langileriaren egoeraren bilakaeran. Arrisku handien pairatuko duten sektoreak honakoak dira:
 - Gazteak. Bi hilabete hauetan gazteen urtez urteko langabezia batz bestekoaren gainetik igo da 14 puntu.
 - Emakumeak. Emakumeek gehiago burutzen dituzten etxeko eta zaintza lanen eta telelanaren ugaritzea edota azken urteetako soldata arrakalaren handitzea gertutik jarraitu beharreko elementuak izango dira emakumeen lan baldintzen bilakaera aztertzeko unean.
 - Adinez nagusien deiren langileak. Merkatu laboralean jarraitzen dutenek prekarizazio maila altuagoetara iristeko arriskua daukate, formazio eskasa eta eredu produktibo berrietara egokitzeko zailtasunengatik besteak beste.
 - Migranteak. Muturreko prekarietate egoeran dauden gehiengoak dira migranteak, are gehiago egoera administratibo irregularrean daudenak.
 - Helduak. Pentsiodunen azken urteetako borrokek erakutsi digute euretako askok bizi duten zaurgarritasun egoera. Horrelako krisi baten aurrean pentsio duin baten aldeko euren aldarrikapenek berebiziko garrantzia izaten jarraitzen dute.

BPG-REN BILAKAERA

Ekonomiaren garapena negatiboa izango dela esateko adierazle nahikoak ditugu. 2020. urtearen hasieran erkidegoetako planifikazio ekonomikorako bulegoek Hego Euskal Herriko BPGk % 1,9ko urteko hazkundera izatea espero zuten. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen 2020. urteko hazkundera negatiboa izango dela. Eusko Jaurlaritzak EAerako osatu duen txostenean BPGren % 3,6ko jaitsiera aurreikusi du, 2021ean % 2,6ko igoera aurreikusiz. Dena den, dagoeneko onartu dute euren aurreikuspenak motz geratu direla eta BPGren jaitsiera nabarmenagoa izango dela. Nafarroari dagokionez, Errealitate Sozialaren Behatokiak BPGren % 8tik % 13ra arteko uzurtze bat aurreikusi du eta aktibitatea ez dela errekueratuko, 2019ko mailarekin parekatuz, gutxienez, 2022ra arte. Estatu mailan lehen hiruhilekoan BPGren uzurtzea %5,2koa izan da Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiaren arabera.

Bilakaera horrek enpleguan ondorio larriak utz ditzake. Hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, dagoeneko enplegu galera garrantzitsua izaten ari gara Hegoalde osoan. Gainera, Laneko Nazioarteko Erakundeak azpienpleguaren ugartze esponentzial bat aurreikusten du, enplegua galduko delako eta soldatak eta lanorduak gutxitu daitezkeelako.


LANGABEZIAREN BILAKAERA

Apirilean 179.085 langabeturekin itxi genuen hilabetea Hego Euskal Herrian. 2012-2015 tarteko langabezia kopuruetatik urrun oraindik baina, 2019ko apirilarekin alderatuta, igoera latza izan du langabeziak, % 20,8 hain zuzen. Gazteen langabeziaren igoerak azpimarra berezia merezi du, izan ere urtez urteko tasaren igoera %34,7koa izan da.

Aurreikuspenen arabera, langabeziak goranzko joera izango du. Azpimarratzekoa da datu horiek ez dituztela Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Txostenen (EABET) datuak barne hartzen. Ezinbestekoa izango da EABET horien jarraipena egitea langabeziaren bilakaera aztertu ahal izateko.

7

LANGABETU KOPURUA HEGO EUSKAL HERRIAN



Iturria: Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE)

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Hego Euskal Herria


Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertu dugu, koronabirusak eragindako krisiak enpleguan izan duen eragina ezagutzeko. Hego Euskal Herrian, Gizarte Segurantzaren sisteman 1.225.276 afiliatu zeuden apirila amaitzean, hau da, martxotik apirilera bitartean, 36.865 afiliatu gutxiago (-% 3), eta horietatik 34.433 erregimen orokorrean afiliatuta zeuden. Autonomoen erregimenean, afiliazioa 2.087 pertsonatan jaitsi da (-% 1) bi hilabete horietan.

Osasun krisiaren eragina bereziki gogorra izan zen martxoan, are gehiago azken bi asteetan. Hilabete horretan 30.000 lanpostu inguru suntsitu ziren termino garbietan. Apirilean enplegua suntsitzen jarraitu zen, baina aurreko hilabetean baino askoz eritmo txikiagoan. Beraz, enpleguaren galera ez da gelditu, baina oraingoz moteldu egin da neurri batean.

Hala ere, oraindik oso goiz da emaitza finala ezagutzeko. Ezjakintasun handia dago etorkizuna mehatxatuta duten eta EABETen eraginpean dauden 200.000 langileen enpleguarekin gertatuko denaren inguruan. Horregatik, ezinbestekoa da jarraipen estua egitea erregulazio-espeditente gehien aurkeztu duten jarduera-adarren bilakaeraren inguruan.

Nafarroa

GIZARTE SEGURANTZA AFILIAZIOA NAFARROAN



Iturria: Lan Ministerioa

Gizarte Segurantzak 7.691 afiliatu galdu ditu martxoan eta apirilean, hau da, % 2,7. Hala ere, kolperik handiena martxoaren bigarren erdian jazo zen (galdutako enpleguaren % 90).


Erregimen Orokorrean (Sistemako afiliazio osoaren % 80) 7.754 afiliatu gutxiago daude. Horrek esan nahi du bi hilabeteetan galdu egin dela afiliazio-erregimen horri lotutako enpleguaren % 3,4.

Denboraldi horretan bertan, etxeko langileen sistema bereziko afiliazioa % 4,3 jaitsi da. Horrek esan nahi du 301 pertsona gutxiago daudela, gehienak emakumeak. Urtetik urterako aldakuntzari dagokionez, apirilaren amaieran beherakada -% 7,2ra igo da.

Autonomoen erregimen bereziak 190 afiliazio galdu ditu martxoan eta 202 apirilean. Bi hilabeteen batura otsailaren amaieran erregistratutako afiliazioarekiko % 0,8ko galera da. Kolektibo hori afiliazio osoaren % 17 da.

Araba/Bizkaia/Gipuzkoa

GIZARTE SEGURANTZA AFILIAZIOA EAEN



Iturria: Lan Ministeria

Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa 29.174 pertsonatan murriztu da martxoan eta apirilean (-% 3). Eta aurten 30.100 pertsona gutxiago dira, 2019ko itxierarekin alderatuta (-% 3,1). Martxoan 22.994 afiliazio galdu ziren, hau da, -% 2,4 (Nafarroan izandako eragin bera).

Erregimen orokorreko afiliazioa 26.679 pertsonatan murriztu da bi hilabete hauetan (-% 3,5). Aurten % 3,6 jaitsi da.

Etxeke Langileen Sistema Bereziak -% 2,4ko atzerakada izan du apirilean, eta -% 1ekoa martxoan. Urtetik urterako aldaketari erreparatuz, erregimen horretako afiliazioa % 5 jaitsi da. Gogoan izan behar dugu, batez ere emakumeek lan egiten duten sektore honetan, hiru emakumetik batek modu irregularrean egiten duela lan.

Autonomoen erregimen bereziko afiliazioa sistemaren guztizkoaren % 18 da. Aurten 2.336 afiliazio gutxiago erregistratu dira (-% 1,4). Eta erregimen hori utzi duten pertsonen 3/4k martxo eta apirila bitartean utzi dute.

Afiliazioaren bilakaera jardueraren arabera

Afiliazioak beherakada nabarmena izan du lehen aipatu bezala. Jardueraren arabera begiratzuz gero, afiliazioak izandako bilakaera, otsailaren bukaeratik martxoaren bukaerara arte, jaitsiera nabarmenena honako jarduerak izan dute:


- zerbitzu administratiboek* -7699
- ostalaritzak -5884
- merkataritzak eta ibilgailuen konponketak -4218
- hezkuntzak -3744
- eraikuntzak -3025
- manufaktura industriak -3654

*zerbitzu administratiboen barruan: bidaia-agentziak, erreserba zerbitzuak eta bidaia-antolatzaileak. Baita alokairu jarduerak, enpleguarekin loturikoak, segurtasun pribatua, lorategi- eta eraikin-zerbitzuak, ofizinetako administrazio jarduerak eta bestelako jarduerak osagarriak ere.

Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entrenimendukoak ere gogor zigortuak izan dira enplegu galerari dagokionez. Termino absolutuetan enplegu galera handia izan ez duen arren, langile gutxi dituen sektorea denez, portzentualki % 9,1eko jaitsiera nabarmena jasan du.

Igoera soilik osasungintza eta zerbitzu sozialek izan dute, baina inondik ere ez da nahikoa izan beste sektore guztietan izandako beherakada konpentsatzeko. Lehen sektoreak ere igoera oso txiki bat izan du.

GIZARTE SEGURANTZA AFILIAZIOA JARDUERAREN ARABERA (%)



Nekaz. Abeltz. Basog. eta Arrantza (A)	2,5%
Erauzte industria (B)	-1,1%
Manufactura ind. (C)	-1,7%
Energia hornik. (D)	-0,6%
Ur hondakin hornik. (E)	-2,7%
Eraikuntza (F)	-6,6%
Ibilgailu konponk. Merkataritza (G)	-4,3%
Biltegi Garraio (H)	-4,3%
Ostalaritza (I)	-8,8%
Informaz. Komunikaz. (J)	-3,0%
Finantza eta aseguru jarduerak (K)	-2,3%
Higiezin jarduerak (L)	-2,7%
Zient. Tek. Jarduera profesion. (M)	-3,2%
Jard. Administ. Zerbitz. Laguntz. (N)	-10,2%
Admini publik. Defen. G.S. (O)	-1,1%
Hezkuntza (P)	-4,1%
Osasungintza Zerbitz. Sozialak (Q)	1,9%
Jard. Artistik. Aisialdi. Eta entret. (R)	-9,1%
Beste zerbitzu batzuk (S)	-6,0%
Etxeko langileak (T)	-1,4%
Lurraldez kanpoko antol. (U)	-5,5%
GUZTIRA	-3,5%

Epea: 2020ko Martxoa-Apirila | Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

Afiliazioa kontratu motaren arabera

Garbi ikusten da lehenengo galdu den enpleguaren nolakotasuna, behin-behineko kontratuak (galduriko kontratuen % 89) izan dira galdu diren lehenak, enplegu prekarioenak. Adinarekin lotuz gero, gazteen enplegua galdu da nabarmen, argi geratuz beste behin ere, enplegu prekarioenak gazteen esku geratzen direla.

Afiliazioa generoaren arabera


Afiliazioaren galera handiagoa izan da gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino. Izan ere, martxoa eta apirila bitartean galdu den afiliazio osoaren % 57 gizonezkoena izan da, emakumeena, berriz, % 43koa izan da.

Dena den, emakumeen langabezia tasak altuagoa izaten jarraitzen du.

Emakumeen langabezia gutxiago igo izanaren arrazoen artean ikusi dezakegu, krisiak gehien kolpatu duen sektoreetan gehiengo emakumeak izan arren, pandemiari aurre egiteko gogor lanean ari diren sektoreetan ere emakumezkoak direla gehiengo.


Sektore prekarizatuenak emakumezkoak ditugun heinean emakumeen enpleguaren bilakaera gertutik aztertzeko gaia izango dugu datozen hilabeteetan.

GALDURIKO KONTRATUAK MOTAREN ARABERA (%)



Epea: 2020ko Martxoa-Apirila
Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra

GALDURIKO KONTRATUAK GENEROAREN ARABERA (%)



Epea: 2020ko Martxoa-Apirila
Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra

ENPLEGUA ALDI BATERAKO ERREGULATZEKO TXOSTENAK (EABET)

Hego Euskal Herria

Apirila amaitzean, 202.000 langile baino gehiago zeuden EABET egoeran. Datua izugarria da, izan ere, Martxo eta Apirilean enplegu-erregulazio espedienteen ondorioz eragindako pertsonak Gizarte Segurantzako afiliazio osoaren % 21 dira (erregimen orokorra). Are gehiago, krisialdiako lehen bi hilabeteetan galdutako afiliazioa baino bost aldiz gehiago dira EABET-etan dauden langileak epealdi berean. Langileriaren zati oso handi bat egoera ezegonkorrean dago eta, aipatu behar da, pandemiaren bilakaerak eta ondorioen ziurgabetasun handiak eremu guztietara hedatu duela ziurgabetasun hori, baita enpleguaren eremura ere. Lehen inpaktuan suntsitu den enpleguaz gain, jarduera asko daude mehatxupean. Aurrekaririk gabeko shock ekonomiko bati aurre egin beharko diogu eta ondorio sozial ikaragarriak pairatzeko arrisku bizia dugu.

Aurkeztu diren arrazoiei dagokienez, EABET kasuen % 91 ezinbesteko arrazoiengatik izan dira.

	Ezinbestean	Ez ezinbestean	Guztira
NAFARROA	45.897	3.860	49.757
E.A.E.	137.995	14.877	152.872
HEGO E.H.	183.892	18.737	202.629

Iturria: Lan Ministerioa

EABETen ERAGINPEAN LANGILE GEHIEN DITUZTEN JARDUERA EKONOMIKOAK

Nafarroa:

EABETen eraginpean dagoen enplegu-bolumena kontuan hartuta, eragin handiena jasan duten jardura ekonomikoak honako hauek dira:

- Ibilgailu motordunen fabrikazioa
- Ostalaritza (janari- eta edari-zerbitzuak + ostatu-zerbitzuak)
- Merkataritza
- Metalezko produktuen fabrikazioa (makineria eta ekipoak izan ezik)

NAFARROA EABETek eragindako pertsona gehien dituzten jardura ekonomikoak (*)	
Ibilgailu motordunen fabrikazioa	%21
Janari- eta edari-zerbitzuak	%14,40
Txikizkako merkataritza	%5,50
Produktu metalikoen fabrikazioa	%3,70
Kirol-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	%3,70
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	%3,40
Makinen eta ekipoen fabrikazioa b.i.s.g.	%3,00
Biltegiatzea eta garraioari lotutako jarduerak	%2,80
Lurreko eta hodi bidezko garraioa	%2,70
Metalurgia	%2,60
Handizkako merkataritza	%2,60
Eraikuntza espezializatuko jarduerak	%2,50
Ostatu-zerbitzuak	%2,40
Hezkuntza	%2,10
Gainerakoa	%27,60

* Martxoaren 13tik apirilaren 20ra metatutako espedienteak

Iturria: Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Enpresen Garapenerako Saila.

Araba/Bizkaia/Gipuzkoa:

Hauek dira jarduera ekonomiko kaltetuenak:

- Ostalaritza (janari- eta edari-zerbitzuak + ostatu-zerbitzuak)
- Merkataritza
- Metalzko produktuen fabrikazioa (makineria eta ekipoa izan ezik)
- Metalurgia

EAE EABETek eragindako pertsona gehien dituzten jarduera ekonomikoak (*)	
Janari- eta edari-zerbitzuak	18,6%
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik	8,3%
Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunena eta motozikletena izan ezik	7,2%
Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikleten kasuan izan ezik	5,6%
Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuen fabrikazioa	4,4%
Beste zerbitzu pertsonal batzuk	4,2%
Hezkuntza	4,1%
Makinen eta ekipoen fabrikazioa b.i.s.g.	3,9%
Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	3,8%
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	3,5%
Osasun-jarduerak	3,3%
Eraikuntza espezializatuko jarduerak	2,8%
Lurreko eta hodi bidezko garraioa	2,4%
Kirol-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2,2%
Ostatu-zerbitzuak	2,1%
Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	1,9%
Elkarte-jarduerak	1,3%
Elikagaien industria	1,2%
Arkitekturako eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; saiakuntza eta analisi teknikoak	1,1%
Ostatu gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak	1,1%
Gainerakoak	17,0%

* Apirila erdi arteko espedienteak
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Justizia Saila.

ENPLEGU PUBLIKOA

Zerbitzu publikoak indartu eta sendotu behar direla erakutsi digu krisiak, orain arteko bidearen kontrako norantzan jotzea ezinbesteko bilakatu.

Zaintza sistema publikoa eta espazio soziosanitario integral, egoki eta neurrikoa ezartzea enplegua sortzeko eta dagoena duintzeko estrategiaren ardatza izan behar luke. Krisi honetan heldu eta haurren zaintza beharrak areagotu izanak, zahar-etxeetan agerian geratu den baliabide eskasiak, etxeko langileen egoera bat batean larriagotu izanak... jendartearen zaintzak erdigunean kokatzeko behararen premiazko izaera indartu dute.


Hezkuntza sistema eredu berrietara ekartzeko bidea egin behar dugu, eta ezinbestekoa izango den eraldaketa enplegua suntsitzeko erabili orde berau indartzeko baliatu beharko da.

Zerbitzu sozialen indartzea premiazkoa dela ukazina bilakatu da. Pobreziaren hedapenak etenik ez duen une honetan behar guztiak asetzeko sistema publikoaren ezintasuna agerian geratu da, zaintza sare herritarren esku geratuz kasu askotan premiazko egoeren kudeaketa.

Osasungintzak inoiz izandako kolapso egoerarik handiena ezagutu du, sistemaren hutsuneak agerian geratuz.

Sare publikoak urtez urte pribatizazio eta murrizketen ondorioak jasan ditu. Enplegu ezegonkorak zerbitzuaren kalitatearen galera ekarri du, eta behin-behinekotasun tasa altuak sare publiko osora hedatzen dira. EAEko enplegu publikoaren behin-behinekotasuneko datuak jaso ditugu 2018-2019 epealdian:

EAEKO ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA



Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra eta Eusko Jaurjaritzaren lanpostu zerrendak.

Enplegu publikoa ere ez da arriskuetatik salbu egongo. Orain arteko joera indartuz, langile publiko finkoen erretiroak behin-behinekotasuna areagotzea ekarriko du ez direlako lanpostu finkoen bidez ordezkatu.

Osasungintzari atal berezitua eskaini diogu.

OSASUNGINTZA

Herrialdez herrialde Covid-19aren aurrean osasunaren arloan emandako erantzuna desberdina izan da. Sare publikoaren indarra, baliabideak, antolakuntza eredu... erabakigarriak izan dira osasun krisi honi aurre egiteko orduan eta ondorio argiak

utzi ditu: osasun arloko profesionalak lanean behar bezala aritzeko zailtasunak, segurtasun neurririk gabe... Arrazoiak arrazoi, osasungintzako langile ugari kutsatu dira euren lanean eta kutsatze eta hilkortasun tasa altuetan kokatu da Hego Euskal Herria.


Azken urtetako murrizketa eta pribatizazioek osasun sistema ahultzeko joera izan dute. Gaur egun honakoak dira gure osasun sistemaren adierazle nagusiak:

GASTU PUBLIKOA OSASUNGINTZAN

Lehenik eta behin, babesten den pertsona bakoitzeko osasungintzara bideraturiko eta autonomia erkidegoek kudeatzen duten urteko euro kopurua aztertu dugu. Hona ekarri ditugun datuak Espainiar Estatuko Osasun Ministerioak eta INEk publiko egiten dituzten datuei inflazioaren eragina aplikatuta ateratu ditugu.

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
NAF	1.577	1.525	1.450	1.485	1.352	1.336	1.395	1.425	1.462
EAE	1.620	1.588	1.517	1.394	1.380	1.389	1.424	1.454	1.461

BABESTEN DEN PERTSONAKO OSASUNGINTZAKO GASTUA (€*)




*Euro konstante | Iturria: Osasun Ministerioa

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA ALTUAK.

Prekarioan lan egiteak eta behin-behinekotasun tasa altuek eraginkortasunean eragiten duela frogatuta dago eta epe ertainera kostu handiagoa suposatzen du. Osakidetza eta Osasunbideako behin-behinekotasun tasa igotzen ari da urtez urte. Osakidetzan behin-behineko kontratuak ia % 50 izatera iritsi dira:


BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OSAKIDETZAN (%)



Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Osakidetzak 2016. urtean publiko egin zuen "Osakidetzako emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunari buruzko txosten diagnostikoa" k emandako datuen arabera, 2016an langileen % 36,47 zegoen behin-behineko egoeran, % 59,96 finkoak ziren eta % 3,57 formakuntzan zeuden langileak ziren. Grafikoan ikusten dugun bezala tasa hori goz doa.

Nafarroako Kontuen Ganberak 2018ko martxoan publiko eginiko txostenak Osasunbideako behin-behinekotasunaren ehunekoak jasotzen ditu urtez urte 2016. urtearen bukaera arte. Urtez urte behin-behinekotasunaren igoera kezagarria izaten ari da, 2016. urtearen bukaeran % 51ra iritsi baitzen.



Iturria: Nafarroako Kontuen Ganbera

Madrildik ezarritako reposizio tasak langileria jubilatu ahala plaza finkoak sortzea eragozten du eta, datozen urteetarako dauzkagun aurreikuspenen arabera, behin-behinekotasunaren igoerak ez du etenik izango.

Osasunbidean urtero 90 plaza finko galtzen dira jubilatzen diren langile gehienen ordean ez delako lanpostu finkorik sortzen.

Osakidetzan ere, langile finkoen % 60k 50 urte baino gehiago ditu eta % 13k 60 baino gehiago. Beraz, langile finkoen kopuruari dagokionez, urte gutxitan dagoeneko pairatzen dugun jaitsierak bere horretan jarraituko du.

15

PROFESIONALEN ARTEKO LAN-BANAKETA


Osasun arloan eman beharreko kalitatean, ordea, beste hainbat faktorek ere eragiten dute. Profesional bakoitzak artatu beharreko gaixo kopuruak eragin zuzena dauka artatzearen kalitatean, bai eta zuzeneko asistentzia-profesionalen kopuruak ere.

Gure osasun-zerbitzuetan agerikoa da zuzeneko asistentzia-lanean aritzen diren profesionalen gabezia, bai eta osasun-taldeko kideen arteko desoreka ere. Horri dagokionez, Hego Euskal Herrian Espainiako eredu bera dugu: medikuan oinarritutako eredu. Espezialitate medikoa da sistemaren ardatza eta ez pazientea eta hark behar duen zaintza.

Europako datuek honakoa erakusten digute: biztanleria modu orekatuan artatzen duten profesionalen kopuru dimentsionatua daukaten herrialdeetan hobeak direla bai bizi-kalitatea, bai pazienteei emandako arreta.

Gurean, ordea, Europarekin alderatuta, oso bestelako errealitatea dugu.


Eredu honek sistemaren kalitatearen eragina izateaz gain profesionalen lan-karga eta lan baldintzetan eragin zuzena du. Izan ere, eredu honek profesionalen estresa, lan-karga handiak eta pazienteen beharrei ezin erantzuteak eragiten die, *burn-out* sindromea jasateko aukerak ugarituz.



OSPITALETAKO OHE KOPURUAK

Sare publiko zein pribatuko 1000 biztanleko ospitaleetako oheen kopurua aztertu ezkerro bai Nafarroan eta baita EAEn ere oheen kopuruak beheranzko joera nabarmena dauka.

1000 BIZTANLEKO OSPITALEKO OHEAK (%)



Iturria: Osasun Ministerioa

Dena den, sare publiko eta kontzertatuko ohe kopuruak urtez urte mantentzeko joera daukala ikusi dugu, beheranzko joera sare pribatuak izanik.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
NAF	2,2	2,3	2,2	2,2	2,6	2,4	2,4	2,3	2,3	2,3	2,3
CAV	2,6	2,6	2,6	2,8	2,8	2,8	2,7	2,7	2,7	2,6	2,7

LOREA

LABek osasungintza sendoa lortzeko helburuarekin, Asistentzia-taldeen Ratioen Antolamendurako Lege bat, LOREA, proposatu zuen orain dela 3 urte. Gaur egun proposamena inoiz baino beharrezkoago bihurtu dela iritzi dugu.

Osasun-arretaz arduratu diren langileentzako ratio profesionalen lege bat da proposatzen duguna, lan duina eta kalitatezko asistentzia bermatzeko tresna gisa.

Herritar guztiei osasun zerbitzu integrala emateko asmoz, artatutako populazioaren arabera osasun-langile eta osasun-langile ez diren kopuru egokia legez arautu nahi dugu. Langile estaldura irizpide finkoa ezarri nahi dugu. Zehaztu nahi dugu artatzen den populazio kopurua eta mota, eta emandako zerbitzuen arabera, zenbat mediku, erizain, administrari zaindari, garbitzaile, mantenu langile, informatikari... den egokia edozein espezialitate edo zerbitzu zehatzean.

Gure hausnarketa eta ekarpenetan asistentzia zerbitzua eta asistentzia laguntza emateko antolakuntza eredu berrikustea eta eraldatzea proposatzen dugu.

Lege horrekin honako helburuak lortuko genituzke:

1. Arreta ziurtatzea eta osasun-arretaren ekitatea bermatzea.
2. Biztanleriaren heriotza-tasa murriztea.
3. Benetako kalitatea areagotzea, antzemandako kalitatearen aldean.
4. Zaintzaren eraginkortasuna hobetzea, arretari lotutako akatsak gutxituz eta profesionalen arteko burn-out-a murriztuz.
5. Plantillaren egonkortasuna ziurtatzea eta behin-behineko kontratu-tasa handia eta kontratazio prekarioa deuseztatzea.
6. Lan-kargen bidezko banaketa finkatzea.
7. Osasun Arretarako Diziplina Anitzeko Taldeak (OADAT) sortzea eta gutxieneko langile-ratioak finkatzea.

ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ARRISKUAK

Ezjakintasunez beteriko hilabeteak dira hauek, eta etorkizuna ere halaxe marrazten zaigu. Dena den, dagoeneko jakin badakigu ekonomiaren gainbehera izugarria izaten ari dela eta aurreikuspen guztien arabera etorkizunean shock ekonomiko izugarria izango dugula. Honek enpleguan ondorio ilunak utziko dizkigu.

17

EABETen bilakaerak enpleguan izan ditzakeen ondorioak gertutik behatu beharko ditugu esan bezala.

- Enpleguaren galera eta bazterketa soziala jasateko arriskua kolektibo zaurgarrienek jasango dute berriz ere:
 - Gazteak. Lehen hilabeteetako enplegu galerak gogor kolpatu ditu gazteak. Gazteen langabezia bataz bestekoa baino 14 gehiago hazi da Martxoa eta Apirilaren.
 - Emakumeak. Enplegu galerak oraingoz gizonezkoena baino apalagoa izaten jarraitzen du. Emakumeei krisi honek nola eragingo dien aztertzeke garaian ordea elementu gehiago hartu beharko ditugu kontutan.
- Etxeko lanak ugaritu egin dira. Zaintza lanak batik bat, konfinamenduaren ondorioz, haur eta mendekotasuna duten heldu askok etxean inoiz baino denbora gehiago igarotzen baitute. Eustatek 4 urtetik behin publiko egiten duen Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, 2018an EAEn emakumeek etxeko lanetan ordu eta 11 minutu gehiago igarotzen zuten gizonezkoek baino, eta etxean bizi ziren lagunez arduratzen 38 minutu gehiago. Krisialdia hasi zenetik Hego Euskal Herriari dagokion daturik ez baldin badugu ere, Funcas-ek apirilaren 6an publiko eginiko IV. inkestan jaso da espainiar estatuan konfinamendu egoeran emakumeek 4,3 ordu igarotzen dituztela zaintza lanak egiten eta gizonek, aldiz, 3,1 ordu.
- Telelana. Oraingoan ere Funcas inkesta aztertu dugu errealitatera hurbildu ahal izateko. 2020ko maiatzaren 11n publiko eginiko VI. inkestan, emakumeen % 37k telelana egiten zuen eta gizonen % 18k. Halaber, aipatu inkestak honakoa dio: 10 langiletik 3,4k bakarrik jarraitu nahiko lukeela telelanean. Izan ere, Forbesen jasotako NordVPNren analisi baten arabera, telelanarekin ohikoak baino lanaldi luzeagoak egin ohi ditu langileak, 2 ordu gehiago hain zuzen ere.
- Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala urtez urte handitzen doan fenomeno da. INEk eskainitako eta Gaindegiak aztertutako datuak ekarriz, 2009an gizon eta emakumeen arteko arrakala 6560 euroko bazen, 2017an 7500 eurora igo dela ikus dezakegu. Gertutik jarraitu beharreko beste elementu bat izango da.
 - Nagusiak. Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak Nafarroako Gobernuarekin publiko eginiko Nafarroako enpleguaren inguruko txostenean, MERS gaixotasunaren ondorioz langabezia eta azpienplegu tasa altuagoak izateko aukerak zituztela ikusi zen, gaixotu eta baja hartzeko aukera gehiago zituztelako. Merkatu laboralean jarraitzen dutenek prekarizazio maila altuagoetara iristeko arriskua daukate, formazio eskasa eta eredu produktibo

berrietara egokitzeko zailtasunengatik besteak beste.

- Migranteak. Muturreko prekarietate egoera bizi dutenen artean gehiengoak dira migranteak. EAEko errenta dezil apalenean diren herritarren jatorriari erreparatzen badiogu, nabarmena da migranteek egoera sozioekonomiko prekarioena pairatzen dutela. Egoera administratibo irregularrean daudenen egoera oraindik eta larriagoa da, bazterketa soziala izateko arriskua biderkatuz.
- Adinez helduen diren langileak. Osasun eta zaintza krisia modu bortitzenean jasan duten kolektiboak dira. Bestalde, pentsiodunen azken urteetako borrokek erakutsi digute euretako askok dagoeneko bizi zuten zaugarritasun egoera. Pentsioen erdia baino gehiago dira 1100 euro azpikoak eta horietatik ia %60 emakumeek jasotzen dituzte. 600 euro azpiko pentsioak %15 pasatxo dira, horietatik %82 izanik emakumezkoenak (Iturria: Gaindegia).

Krisi honetan gehien pairatu duen kolektiboetakoa izan da helduena osasun eta zaintza ikuspegitik. Orain, euren bizi-baldintzen zaintza bermatu nahi badugu, ezinbestekoa izango da euren aldarrikapenak lehen planora ekartzea.

- Osasun ikuspegi huts batetik proposatzen diren, kasu batzuetan horiek zalantzarik edo eztabaidagarriak izanik ere, maiz jokabide ekonomiko neoliberalenak izan ditzake ondorio gisa, bere jatorrian babes neurriak ezarriko ez balira bederen. Intuizio hauek azterketa honetara ekarri ditugu, hurrengo azterketetan (datu errealak eskuratzeko xedez) behatzeko asmoz eta konpromisoz. Izan ere, birusaren kutsatzea ekiditeko harturiko neurriek enplegua suntsitzeari bide eman diezaiekete kasu askotan.

- Lan osasuna langileon etengabeko eta larritasuneko aldarrikapena izan da. Administrazioa eta patronala, keinu eta publizitatetik harago, entzungor izan ohi da. Baina oraingo egoeran segurtasun neurriek langile kopuru txikiagoarekin lan egitera ekar dezakete. Hainbat enpresen edo negozioen ohiko funtzionamendua plantilla murriztuarekin aurrera ateratzeko bidea zabal daiteke eta Robotizazio eta teknologia berrien erabilpena bultzatu daiteke langile gutxiagorekin lan egin ahal izateko, krisi honen aitzakia hutsarekin. Orain arte laneko segurtasun neurriak bete ez diren sektore askotan erabil dezakete arrazoi hau langileak kaleratzeko, batetik. Eta, bestetik, geratzen diren langileen lan karga handitzeko.
- Komertzioan eta ostalaritzan aforoaren mugak uneoro langile gutxiagorekin funtzionatzeko aukera emango du. Orduetegi malgutasuna ekar dezake honek, lan kargen handitzea, jai egunetan irekitzea indartu eta prekarietatean beste urrats bat eman daiteke honela.
- Sektore hauetan emango den bilakaerak honako elementuak ere izan ditzake, 2008ko krisitik hona ikasitakoek erakutsi diguten bezala:
 - Adinaren faktorea enplegu suntsiketean. Eskubidedun langile finko helduak kaleratzeko arriskua, baldintza merkeagotan errealitate prekarioak ezagutu besterik egin ez duen eta baldintza horiek onartuko dituzten langile gazteagoak kontratatuzko.
 - Egoera berrira egokitzeko aukera gutxi izango dute merkatari eta ostalari txikiek. Sektoreak enpresa handien esku geratzeko arriskua du.
 - Etetearen kostuak ordaintzerik izango ez duten merkatari eta ostalari txikien negozioek multinazionalen esku geratzeko aukera handia izango dute.

ERRENTAKO LEHEN DEZILEAN DIREN HERRITARRAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA (%). EUSKALA.E, 2017

